

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Beaumont kontseilariak Nafarroako poliziakideen oinarrizko ikastaroa ireki du

Nafarroako Foruzaingoko eta bederatzi herritako udaltzaingoetako etorkizuneko profesionalak 975 orduko prestakuntza jasoko dute

Osteguna, 2018.eko apirilak 26

Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justiziako kontseilari M^a José Beaumontek zuzendu du ostegun honetan Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolak ematen duen “Poliziakideen Oinarrizko Prestakuntza (2018)” ikastaroaren hasierako ekitaldia, eta bertan, ongi etorria eman die 2013az geroztik Foruzaingora eta 2015az geroztik Udaltzaingoetara sartu den lehendabiziko promozioari.



El director general de Interior, Gastaminza, la consejera, Beaumont, y la directora de la escuela, Cibiriain, en la presentación del curso.

Nafarroako Foruzaingoko eta Foru Komunitateko bederatzi herritako udaltzaingoetako etorkizuneko profesionalak gaur hasi dute azaroa arte 975 eskola-ordu bilduko dituen berariazko prestakuntza.

Foruzaingoko etorkizuneko agenteekin batera, Barañain, Lizarra, Erriberri, Iruña, Peralta, Tafalla, Tuter, Eguesibar eta Atarrabiako udaltzaingoetarako hautagaiek osatu beharko dute hautaketa-prozesua.

Kontseilariaren agerraldia

Ikastaroko partaideei egindako ongi etorrian, Beaumont kontseilariak berariaz nabarmendu du Nafarroako Gobernua legealdi honetan “behar adina giza-baliabidez hornituriko kalitateko zerbitzu publikoak eskaintzeko” egiten ari den ahalegina; “horren adibide garbia dugu Foruzaingoko 37 plazako lan eskaintza publiko hau, deialdirik gabeko hainbat urteren ondoren”, gaineratu du.

Departamentuaren
arduradunak gogoratu duenez,
polizia-erakunde
autonomikoaren plantillan
izandako jaitsierak Nafarroako
Gobernuaren segurtasun
publikoaren arloko erronkei
ekitea eragotzi du,

Foruzaingoaren mailakako garapenerako nahiz polizia integrala bihurtuko duten zeinbait esparrutako eskuduntza osoak jasotzeko Estatuarekin bideratu beharreko negoziak hastera ere oztopatu duelarik.



Gaur ireki den ikastarora joango diren poliziak

Horren harira, luze gabe, NAOan Foruzaingoako 17 plaza berrirako deialdia argitaratuko dela iragarri du.

Beaumontek eskerrak eman dizkie Barne Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari eta Foruzaingoaren oposizioa nahiz toki-erakundeen hautaketa-probetako kalifikazio-epaimahaiei, baita Segurtasun eta Larrialdi Eskolari ere, azken hau arduratu baita etorkizuneko poliziakideen prestakuntza eta hautaketa-prozesuaren azken fasea antolatzeaz.

Ikastaroaren edukia

Bestalde, Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolako zuzendari Izaskun Cibiriainek pertsonen segurtasunari dagozkion gai guztiei buruz Eskolak eskaintzen duen zeharkako informazio zerbitzua gogoratu du, horren inguruko prestakuntza ematen baitie Nafarroako poliziei, udaltzainei, suhiltzaileei, babes zibileko profesionalei eta azken bi jarduera horietako boluntarioei.

Cibiriainek ikastaroaren ezaugarriak azaldu ditu: 975 eskola-ordu Eskolan bertan, Iruñeko Foruzaingoaren eta Udaltzaingoaren instalazioetan eta kanpoko beste agertoki batzuetan. Horrekin batera, prestakuntza emanen da Nafarroatik kanpoko beste zentro batzuetan, eta praktikak eginen dira zehaztutako polizia-erakundeen lanpostuetan.

Ikastaroak zortzi modulu ditu. Lehenengoa, 'Polizia Komunitarioa eta Asistentziala' deritzona, Genero-Berdintasuna, Aniztasunaren Arreta, Herritarrekiko Harremanak eta Polizia-Bitartekaritza gisako prestakuntza-unitateek osatzen dute.

Bigarren moduluak 'Poliziaren misioa eta funtzioak' du izenburu, eta Nafarroako Segurtasun Publikoko sistemaren ulermena, poliziaren antolaketa eta funtzioa eta Etika eta Deontologia profesionala ditu ardatz.

Hirugarren eta laugarren moduluak Prebentzioa, Babesa eta Poliziaren Esku-Hartzeari buruzko alderdi teknikoak dituzte aztergai, betiere dagokien esparru profesionalari atxikita.

Bosgarren arloak, Juridikoa eta Polizia-Ikerketarenak, polizia-lanari dagozkion zereginari eutsi behar dion arau-esparrua du ardatz.

Seigarren moduluak Polizia Ezaguerak eta Trebetasunak ditu aztergai. Bertan landuko dira, bestek beste, informazio-teknologiaren erabilera, prestakuntza fisikoa, ibilgailuak gidatzea edota euskarazko eta ingelesezko polizia-hizkuntza teknikoak, herritarrekiko komunikazioa hobetzeko asmoz.

Bukatzeko, programak funtsezko beste bi modulu ere eskainiko ditu: Praktikak eta Jarrera. Praktiketara, 352 ordu egiten dituzte guztira, lanpostuari dagozkion funtzioak eta zereginak ikasi eta garatzeko asmoz. Hainbat polizia-zerbitzutan egiten dituzte profesionalen laguntzaz, ez soilik aurreikusia duten helburuko zerbitzuan.